

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

368/2026 Foru Agindua, uztailaren 20koa. Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanletik beherako udalerriei udalerri barruko garraioa finantzatzeko Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren norgehiagoka bidezko dirulaguntzen emakida

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 15eko 26/2021 Foru Dekretuaren bidez, Lurralde Oreak eta Lurralde Antolamendu Sailaren dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak onetsi ziren, norgehiagoka bidez, udalerri barruko garraioa finantzatzeko, 20.000 biztanletik beherako Arabako Lurralde Historikoko udalerriei zuzenduta. Era berean, otsailaren 4ko 51/2026 Foru Aginduak aipatutako dirulaguntzen 2026ko ekitaldirako deialdia onartu zuen.

Oinarri orokor horiek eta 2026ko ekitaldirako deialdia 2021eko ekainaren 23ko eta 2026ko otsailaren 16ko ALHAOn argitaratu ziren, hurrenez hurren, eta hilabeteko epea eman zen eskabideak aurkezteko, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskaera guztiak epe barruan aurkeztu ziren, eta dirulaguntza eskatu duten toki erakundeek deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzte.

Deialdiak 55.000,00 euroko zuzkidura izan zuen, eta garraio linea bakoitzeko 6.300,00 euroko guztizko zenbatekoa ezarri zen, eta udalerri bakoitzeko guztizko zenbatekoa, berriz, 10.500,00 eurokoa. Hala ere, hasierako zenbatekoa gehienez ere ehuneko 10 handitu ahal izango da, beste deialdi bat egin behar izan gabe, baldin eta aurrekontu kreditua badago.

Horiek horrela, balorazio batzordeko kideen esku oinarriak eta eskaerak jarrita, eta eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera erkatu ondoren batzorde horrek txostena egin zuen, bertan jaso zuelarik bere ebaluazioa eta erakunde onuradunen lehentasun ordena.

Dirulaguntza proposamenaren zenbatekoa 58.999,79 eurokoa da, oinarrien eta deialdiaren baldintzak betetzen dituzten udalerri eskatzaileentzat. Beraz, balorazio batzordeak deialdia 3.999,79 eurotan handitzea proposatzen du, hau da, deialdian jasotako ehuneko 10eko muga baino gutxiago.

Ekainaren 18ko 312/2026 Foru Aginduaren eta uztailaren 16ko 346/2026 Foru Aginduaren bidez, deialdiaren gehieneko zuzkidura 3.999,79 eurotan handitzea onetsi zen, eta, ondorioz, Arabako Foru Aldundiaren 2026. urterako aurrekontuko «10202. G/441100/46290100 Udal barruko garraioa» partidaren zenbateko baimendua 58.999,79 eurokoa da.

Deialdiaren seigarren oinarriarekin bat etorritik, eskaera bakoitzari dagozkion izapideak bete eta gero, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuari aurkeztuko zaizkio, eta hark ebaztuko ditu, dagokion foru aginduaren bidez, zeinak amaiera emango baitio administrazio bideari.

Horregatik guztiagatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Foru agindu honen eranskinean zerrendatzen diren toki erakundeei dirulaguntzak ematea, udalerri barruko garraioa finantzatzeko, bakoitzari dagokion zenbateko zehatzean.

Bigarrena. Bernedo eta Lagrango Udalei dirulaguntza eskaerak ukatzea, deialdiaren lehenengo oinarria eta dirulaguntza horiek emateko oinarri arautzaileak ez betetzeagatik. Bertan jasotzen denez, garraioa lurralde eremu bereko guneren artean egin behar da, eta udal horiek udalerrien arteko lerro bat planteatzen dute; beraz, ezarritako eremu geografikoa gainditzen du, eta, gainera, balizko garraio linea hori foru eskumenekoa da.

Hirugarrena. Toki erakunde bakoitzari emandako dirulaguntzaren ehuneko 50 aurrerakin edo konturako ordainketa gisa ordaintzea, emakida ebazpen hau onartzen den unean. Dirulaguntzaren zenbatekoaren beste ehuneko 50 aurreko aurrerakina justifikatu ondoren ordainduko da. Justifikazio hori 2026ko urriaren 15ean aurkeztu beharko da beranduenez.

Laugarrena. Lehenengo ordainketa justifikatzeko, erakunde onuradunek justifikazio kontu partzial bat aurkeztu beharko dute, deialdiaren zortzigarren oinarrian adierazitako dokumentazioarekin. Dirulaguntzaren ehuneko 50eko bigarren ordainketa justifikatzeko, azken justifikazio kontua bidali beharko da 2027ko urtarrilaren 31 baino lehen, dirulaguntzaren xede den zerbitzuaren prestazio osoari buruzkoa, eta deialdiaren zortzigarren oinarrian adierazitako dokumentazioa ere jaso beharko du.

Bosgarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea, eta argitalpenak jakinarazpen ondorioak izango ditu, deialdiaren zortzigarren oinarrian ezarritakoaren arabera.

Seigarrena. Foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, bat etorritz Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 20a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

BAIMENDUTA

Lurralde Orekaren jarduneko zuzendaria

JON ANDA LÁZPITA

ERANSKINA

HERRIA	IFK	LERROAK	MODULUEN ARABERAKO BALORAZIOA	AURREKONTUA (BEZA BARNE)	SARREREN AURREKONTUA	GASTU GARBIA	EMANDAKO DIRULAGUNTZA
ZIGOITIA UDALA	P0101800A	1	6.300,00	24.000,00	0,00	24.000,00	6.300,00
GAUBEA UDALA	P0106300G	1	6.300,00	12.000,00	0,00	12.000,00	6.300,00
LANTARON UDALA	P0105400F	9	10.500,00	21.084,45	0,00	21.084,45	10.500,00
URKABUSTAIZ UDALA	P0106200I	3	12.611,40	9.304,90	0,00	9.304,90	9.304,90
KUARTANGO UDALA	P0102100E	2	10.500,00	10.132,00	0,00	10.132,00	10.132,00
ARAMAIO UDALA	P0100400A	2	2.191,29	3.718,00	0,00	3.718,00	2.191,29
AMURRIO UDALA	P0100200E	2	7.971,60	16.044,60	0,00	16.044,60	7.971,60
IRURAIZ – GAUNA UDALA	P0102900H	1	6.300,00	21.139,08	0,00	21.139,08	6.300,00
TOTAL							58.999,79